

Bortxatzaile bat gizarteratu gabe kaleratu dutela salatu dute

Clara Campoamorrek adierazi du bere esku dagoena egingo duela biktimak babestu ahal izateko

Jon Ander Urkiaga Barakaldo

Lau emakume bortxatzeagatik hemeretzi urtez espetxean egon dako gizona kaleratu egin dutela eta, Arabako Probintzia Auzitegian jarritako helegitea aintzat hartu ez izana salatu zuen atzo Clara Campoamor emakumeen eskubideen aldeko elkarteak

prentsaurreko batean. Gizon hori gizarteratu gabe kaleratu izana gaitzetsi zuen.

Helegitearen emaitza ikusirik, orain biktimgenganako urruntze eskaera betetzearen alde lan egingo dutela adierazi zuen Blanca Estrella Ruiz elkarteko buruak. Eta, horretarako, «Udaltzaingoa-ren laguntza eskatuko diogu Barakaldoko alkateari».

Elkartearen arabera, «Barakaldoko emakumearen bortxaketa izan eta bi egunetara, bortxatuak izandako beste lau emakume agertu ziren, nahiz eta azken horietatik bakar batek baino ez zion salaketari eutsi». Zigor kode za-



Clara Campoamor elkarte kideak, atzo, Bilbon. JONHERNAEZ / ARGAZKI PRESS

harrarekin, «biktimak bortxatzailea barkatu edo haren aurkako salaketa erretiratu gero, ez zegoen inolako akusaziorik». Beraz, bortxaketa biren zigorra baino ez du bete akusatua.

Horri aurre egiteko hainbat erakunde eta organo judizialek izan ohi duten jarrera «penagarrria» salatu zuen Estrella Ruizek:

«Tristea da, besteak beste, gure elkarteari esker egon izana bortxatzailea hemeretzi urtez kartzelatan, eta ez beste erakunde edo lege batzuei esker. Hitzak gauza bat dira, eta ekintzak beste bat».

la hamarkada biren ondoren, bortxatzailearekin «gogor lan egin» dutela esateko aurkeztu ziren berriz ere Barakaldon Clara

Campoamor elkarte kideak. «Gizarteratzea ez da guk oparitu beharreko zerbait, baizik eta berak irabazi beharrekoa; eta berak lortuz gero, ni izango naiz gizarteratzea babesten lehena», esan zuen Blanca Estrellak. Baina, kasu horretan ez omen da halakorik gertatu, Estrella Ruizen hitzetan, «delitugileak ez duelako egindakoa onartu, ez barkamena eskatu, eta oraindik ere ez duela damurik agertu».

Haur pornografia Interneten

Blanca Estrella Ruizekin batera prentsaurrekoan parte hartu zuen elkarte abokatu Maite Iturratek; Barakaldon atxilotu zuten ustezko pederastaren kasuan herri akusazio gisa parte hartuko dutela jakinarazi zuen.

Pederastia sare bateko kide izateagatik atxilotutako barakaldar horri deklarazioa hartu eta aske utzi izana arbuatu zuen Iturratek, «auziak Internetekin zerikusia duenez, frogak desagerrarazteko aukera handia delako».

Zalantzan jarri zuen behin-behineko askatasuna eman izana erabaki egokia izan ote zen.

Hiesari aurre egiteko kanpaina antolatu dute hiru kolektibok

Lehenengo aldiz Iparaldeko eta Hegoaldeko gay eta lesbianen bi kolektibok bat egin dute

Xabier Otamendi Donostia

Hiesaren arriskuak gutxitzeko kanpaina izena du Ipar Euskal Herrian eta Landetan (Frantzia) egingo duten kanpainak. Aurten lehenengo aldiz, Hego Euskal Herriko eta Ipar Euskal Herriko gay eta lesbianen bi kolektibok bat egin dute. Urtero antolatzen du AIDES Frantziako gobernuz kanpoko erakundeak kanpaina hori. Aurten Gehitu eta LGP Biarritz elkarte boluntarioak ere parte hartuko dute bertan. Lehenengo aldia du Gehituk, eta oso gustura agertu dira.

Uztailaren 24tik 27ra bitartean izango da kanpaina. Ipar Euskal Herriko eta Landetako hondartza eta taberna horiek gizon homosexualen topagune ohikoak dira. Hori dela eta, kanpainaren helburua Hiesa kutsatzeko izan ditzaketen arriskuak murriztean datza.

Horretarako, «elkarrizketa konfidentzialak» antolatu dituzte hiru elkarteetako kideek, haietara joaten den edozein gizonetzokerekin informazioa trukatzeko eta

haiek balizko arriskuez ohartarazteko. Saio horietan bildutako informazioa eta datuak lana abiatzeko ere erabiliko dituztela jakinarazi dute kanpainako arduradunek. Biltzen dutena proiektu berriak lantzeko baliatzea posible izango dela esan dute.

Koldobike Mujika Gehituko kidearen ustetan, garrantzitsua da Ipar eta Hego Euskal Herriko lesbiana, gay, bisexual eta transexualen elkarteek indarrak batu izana. Hau «lehenengo pausoa» baino ez dela esan dute bi elkarteetakoek. Izan ere, lehenik Donostian eta, ondoren, Baionan egingo duen erakusketa dagoeneko martxan da.

Elkarren arteko harremana

LGP Biarritz elkarte kideak Kriss Stephany kideak esan duenaren arabera, badute Hegoaldetik zer ikasia: «Adibide batzuk jartzearen, homosexualen arteko ezkontzarik ez dugu, eta ezin dugu homosexualitatearen inguruko kanpainarik egin ikastetxeetan».

Gehituko kideek ere badutela zer ikasi esan dute. Izan ere, Gipuzkoan ez da inoiz horrelako ezer egin. Hartara, Gehituko kideek ikastaro bat egin dute AIDES elkartearen eskutik. Kanpainari begira egin dute ikastaroa batik bat, eta etorkizunean Gipuzkoan ere horrelako kanpainari bat egitea espero dute.

Eskuratu
Antton Mendizabal
eskultoreak
berriaren
5. urteurrenerako
egin duen eskultura

250 €
Egin eskaera
harpidetza@berria.info
edo 943 30 43 45

34x9x7

berria
luzatu bostekoa

Eskultoreak sinatua
Serie mugatua eta zenbakitua